MANAGEMENT

iC/AZ

Kolektibo egoiliarra Azkuna Zentroan

inteligencias colectivas

160610-fichas comunidades AZ EUSKERA.indd 25 05/11/2016 16:15:28

MANAGEMENT

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

160610-fichas comunidades AZ EUSKERA.indd 26 05/11/2016 16:15:28

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 1 07/11/2016 12:00:39

MANAGEMENT

* Zurbarán Baratza
* EKHI
*Etxekoop
*Debalde

PROIEKTUA

· Feminismoa
· Elikadura burujabetasuna
· Tokiko dirua
· Vivienda y energía
· DOT



LAN - TALDEAK

ANIMAZIO TALDE



BILTZARRA

DESAZKUNDE KOLEKTIBOA GIZA-USTIAPENEN MOTELTZEAN JARDUTEN DAN ELKARTEA DA

ic inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 2 07/11/2016 12:00:40

DESAZKUNDE KOLEKTIBOA GIZA-USTIAPENEN MOTELTZEAN JARDUTEN DAN ELKARTEA DA

Egilea/k: Desazkundea
Kokapena: Kokapen zehatzik gabe, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: 20-30 pertsona
Publiko / komunitate osoa: 30-80 pertsona
Adimena: Gogoeta elkarbanatuen bitartez, zenbait helburu, saiakuntza eta ondorioztaketa burutzeko lan-taldeak eratzen eta osatzen dauan elkartea da.
Jarduera / Azalpena: Wikipediaren arabera "Desazkundea pentsamendu politiko, ekonomiko eta sozialaren joera bat da, ekoizpen ekonomikoaren gutxitzearen aldekoa, gizakia eta naturaren artean oreka berri bat ezartzeko asmoz, eta aldi berean, gizakien arteko erlazio berri bat baita ere, epe luzera eta laburrera eta maila lokalean zein globalean". Desazkunde 2009 jaio zan gaur eguneko errealitatea zalantzan jartzeko tresna moduan. Elkarlanean jarritako gizakien artean hainbat helduru eta arlo eratzen dira, berauek bere baitan garagarriak izanik.
Tresnak / Egitura: Gai zehatz batzuen inguruan lantzen diran lan talde bitartez antolatzen dira, bakoitzak era autonomoan garatzen eta antolatzen diren proiektuak sortuz (Ekhi, Debalde, Auzoko Baratza...). Gainera garaizko lan sorta batzuk eratzen dira, "Satelite" deritzotenak (itzulpenak, testuak, ekonomia, kale-ekintzak...). Biltzarren bitartekariz hartzen dira talde erabakiak (2 edo 3 hilabetero), Dinamizazio Talde-aren arduraduntzaz antolatuz.Talde berau aktiboki lanean dagozan lan taldeetako kideez osatu hi da. Erabakiak kolektiboki hartu egiten dira partaidetza dinamikak erabiliz.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 3 07/11/2016 12:00:40

MANAGEMENT



Organo erabakitzaile kolektiboak

BILTZARRA / AUZOLANAK

LAN TALDEAK

Espazio digitala · Harremanak · Espazio fisikoa · Euskera · Barne - arazoak

MANTENUA

PROIEKTUA

MANTENU TALDEA

- Eztoker (espazio digitala)
- Baitoker (espacio físico)
- Elkarteak (Atazak)

EKONOMIA BERRIENTZAKO ELKARSORKUNTZA EGITURAK

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 4 07/11/2016 12:00:40

EKONOMIA BERRIENTZAKO ELKARSORKUNTZA EGITURAK

Egilea/k: Wikitoki
Kokapena: 5 - Ibaiondo, San Frantzisko, San Frantzisko, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: 24 pertsona
Publiko / komunitate osoa: beste kolektiboak (30-40 pertsona)
Adimena: Elkarlangintzan adituak diren enpresek osaturiko elkarte eta espazio autokudeatua. Baliabide-eratzaile agentea da bai burujabetzarako, bai inguruko ekimenentzako ere.
Jarduera / Azalpena: WikiToki prozesu esperimentala da bere baitan, 'elkar-' aurrizkia konexio komun gisa daukan gizarte/kultura/ekonomia/politika I+G laborategia. Praktika, hausnarketa eta ekintza komunitatea da, etengabeko prestakuntza, ikerketa, ideiagintza eta prototipatzea, elkarsorkuntza eta praktika kolaboratiboena. "Kolaboratiboa"-ren inguruan lan egiten duten ekimen desberdinetako 24 pertsonek, guztiona den lantokia kudeatu eta taldearentzako lehentasunezkoak diren jarduerak eta proiektuak garatzen dituzte. WikiTokik, egoiliarrak diren beste proiektuen bilerak eta jarduerak ere bere baitan hartzen ditu.
Tresnak / Egitura: WikiTokiko antolaketa arlo hauetan oinarritzen da: Bilera (hilean behin egiten den erbakitze kolektiborako saioa), lan-talde eta proiektu zehatzak (Harremanak, Espazio fisikoa, Komunikazioa / Digitala eta Barne-arazoak batzarren denbora eta atazak antolatzen dituztenak), Auzolanak (gai zehatzetan lan egiteko sortzen den lan kolektiboa) eta aldizkako egin beharreko jardueratan; Baitoker (materialen kudeaketari dagokion hileroko jarduerak), Eztoker (digitalaren kudeaketari dagzkion hileroko jarduerak) edo biltzarren antolaketa.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 5 07/11/2016 12:00:40

MANAGEMENT

BANCO DEL TIEMPO

·Ikustarazi

Zenbakia Grafika

BATEZBESTEKOA

ZEREGINEN DENBORA

JARDUERA

PERTSONA

Gizabanakoak Taldea

TIEMPO

Hilabetea Metatua

ERABAKIA

Bilzarra Auzolan

LANA

Mantenua Garapena

ORDREN DENBORA BANKUA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 6 07/11/2016 12:00:40

ORORENDENBORA BANKUA

Egilea/k: Wikitoki
Kokapena: 5 - Ibaiondo, San Frantzisko, Bilbo
Tipologia: Teknologia digitala
Kideak: 24 pertsona aktiboki
Publiko / komunitate osoa: 24 pertsona aktiboki
Adimena: Talde baten kide diren pertsona bakoitzaren parte hartzea eta arduratasun maila neurtzeko tresna da, kudeaketa jarduerak eta erantzukizunak orekatzearen eta ikustaraztearen jomugaz.
Jarduera / Azalpena: WikiToki, osatzen duten pertsonek eskaintzen dioten denborari (8 ordu hilero) esker mantendu eta garatzen jarraitzen den elkarte autogestionatua da. Denboraren Bankuak, denborari dagokionez hitzartutako arduratasuna (baita desbideratzeak edo desorekak) eta zein jardueratan (asanbladak, lan-taldeak, auzolanak, mantenu edo garapen jarduerak, etab.) lan egiten den ikustarzatzeaz aduratzen den tresna da. Ororen Denboraren Bankua metagarria da baina oxidazio sistema bat ere badu, pertsonek bere denboraren librearen arabera laguntzea ahalmentzen duena.
Tresnak / Egitura: Denboraren bankua, sarean dagoen excel agiri bat da. Parte-hartzaile bakoitzak (24 pertsona) erlaitz bat izanik, dokumentua editatu daike. Bertan data, denbora eta egindako jarduerak idatz daitezke zutabe desberdinetan sailkatuz, Asanblea, Lan edo Jardueratan lan egin den zehaztuz, baita lan-taldea eta egindako jarduera mantenu edo garapen-jarduerak izan diren adieraziz. Badago ere, banaka/taldekako datuak konparatu eta bistaratzen dituen orri bat. Bertan hilean egindako orduen batezbestekoa zein orokorrean pilatutako orduak numerikoki zein grafikoki adieraziak agertzen dira. Koloreekin, orduen batezbestean, gainetik eta behetik dauden pertsonak bereizi egiten dira.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 7 07/11/2016 12:00:40

MANAGEMENT

ERABAKITZE ETA KOMUNIKAZIO TRESNAK



BILTZARRA



MAIL ZERRENDA



ESKAINTZA ETA BEHARREN - AURKIBIDEA

40 ekimen-espazio

ESPAZIO ELKARBANAKETA SAREA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 8 07/11/2016 12:00:40

ESPAZIO ELKARBANAKETA SAREA

Egilea/k: Wikitoki
Kokapena: 5 - Ibaiondo, Bilbo Zaharra, Zabala, San Frantzisko, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: 43 ekimen
Publiko / komunitate osoa: 43 ekimen eta 27 agente
Adimena: Pertsona eta ekimen ezberdinen arteako elkar trukaketaren bitartez, baliabideak eta espazioez baliotuz, elkar topaketa eta aukera eremu bat ahalbidetuz.
Jarduera / Azalpena: Espazio Elkarbanaketa Sarea, Bilbo Zaharran, San Frantziskon eta Zabalan, espazio fisiko edo lokal bat dituzten kolektibo/ empresa/ elkarte zein partikularren arteko baliabideak eta espazioak partekatzeko proposamena da. Horretaz gain, ekimen ezberdinak konektatu, baliabideak partekatu, espaziorekiko dauden beharrak bete, haien artean erlazio eta aukera berriak ahalbidetuz.
Tresnak / Egitura: Momentuz sarea osatzen duten 43 ekimenek, web orrian eta argitaratu den kontaktu-aurkibide gisako dossier batean mapeaturik agertzen dira, azken honetan ekimen bakoitzaren kontaktu-datuak, taldeari eskaini diezaiokeena eta dituen beharrak fitxa batetan batzen dira. E-mail zerrendan harpidetzeko aukera ere badago (gaur egun 70 kiderekin), honen bitartez agente guztiekin konektatu, beharrak eta baliabideak partekatzeko.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 9 07/11/2016 12:00:40

MANAGEMENT

KONPARTSEN FEDERAKUNTZA

Bilboko Konpartsak-eko
6 ordezkari

KOMISIO MISTOA

Udaleko alderdi politikoen
6 ordezkari

Alde Zaharreko Merkatarien
Elkartearen ordezkariak

plaza librea
ordezkaria

Elbarrien Elkarteko
ordezkariak

BOTTOM-UP JAIAK

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 10 07/11/2016 12:00:40

BOTTOM-UP JAIAK

Egilea/k: Bilboko Konpartsak
Kokapena: Auzo guztiak
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: 28 konpartsa
Publiko / komunitate osoa: Hiri osoa
Adimena: Bilbotarren giza taldeen bitartez antolaturiko herri jaiak.
Jarduera / Azalpena: Konpartsak auzo, elkarte edo kolektibo ezberdinak ordezkatzen dituzten koadrila heterogeneoak dira. Guztion arten elkartuz, jaiak antolatu eta dinamizatzen dituzte Arenaleko txosnetako musika eta ekintza ezberdinen bitartez. Konpartsa hauek izan ziren 1978an gaur egungo Aste Nagusiaren ereduaren oinarriak ezarri zituztenak; herritarrek sortu eta herritarrontzat izango ziren jaiak eginez. Momentu horretararte ezarritako ereduarekiko funtsezko aldaketa suposatu zuen.
Tresnak / Egitura: Astero bildu egiten dira eta ohiz kanpoko batzarrak gauzatzen dituzte jaiak hurreratzen direnean. Horretaz gain, hilean behin konpartsa bakoitzeko ordezkariak Bilboko Konpartsak Federazioan batu egiten dira ildo edo norabide komunak ezarri eta lan taldeak sortzeko. Bilboko Konpartsak Federazioak, Jai Batzorde Misto Paritarioan partaide da. Jai Batzordea, Bilboko Udalan ordezkaritza politikoa duten alderdien zinegotziek, Konpartsen Koordinadoraren ordezkari batek, Alde Zaharreko Merkatarien Elkartearen eta Elbarrien Elkarteko ordezkariek osatzen dute. Gaur egun libre dagoen plaza bat ere badago.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 11 07/11/2016 12:00:40

MANAGEMENT

EL CORTE INGLÉS

BILBOKO UDALA



KOMUNIKABIDEAK

Lehiaketa irekia:
"Bilboko jaietaz jai herrikoiak egin ditzagun"

AND THE WINNER IS:

- 2 proposamen irabazi
- herri antolaketa



ANTOLAKETAREN OINARRIA

Aste Nagusia

Konpartsas (24)

Txosna

Fanfarria

> 50 pertsona jantzita

1º JAI BATZORDE HERRITARRA

Hiri - ekimenak

Sindikatoak

Alderdi politikoak

UDAL JAIEN LEHIAKETA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 12 07/11/2016 12:00:40

UDAL JAIEN LEHIAKETA

Egilea/k: Bilbotarrak, Udala eta El Corte Inglés
Kokapena: Auzo guztiak, Bilbo
Tipologia: Estrategia
Kideak: Bilboko hiritarrak, Udala eta El Corte Inglés
Publiko / komunitate osoa: Hiri osoa
Adimena: Autoantolaketan oinarritzen den jai eredu berri bati bide ematen dion prozesu bat sortzea.
Jarduera / Azalpena: Bilboko Jaiak (...) herritarren benetako parte-hartzea ez daukate. (...) Bilboko jendarte gehiengora ez da zabaltzen herriak ez duelako parte hartzen. (...) El Corte Inglés Bilboko hiribilduaren laguntzarekin eta komunikabideen parte-hartzearekin, lehiaketa bat iragartzen du hurrengo goiburuarekin "Bilboko jaietaz jai herrikoiak egin ditzagun". 1978ko deialdira aurkeztu ziren 27 proiektuetatik bi aukeratu ziren. Gaur eguneko jai eredu mistoaren jatorria da.
Tresnak / Egitura: Lehen Jai Batzordea, kultur- erakunde, kirol-erakunde, alderdi politikoak eta sindikatu guztiak batuko zituen batzarretik eratu zen. 17 kide zituen zinegotzi bakar bat izan gabe. Jaien dinamizaziorako eta, auzo-batzordeak sortzeko, hiritarrentzat deialdi bat egin zen: lagun-koadrilak, elkarteak, etab. konpartsetan antolatuko ziren. (Ezarri ziren baldintzak: fanfarre propio izatea eta antzera edo berdin jantzita izango ziren 50 pertsona gutxieneko taldea izatea). Jai- barrutian konpartsa bakoitzak bere txosna izango zuen (musika, janaria eta edariak zerbitzatuko zituen barra ireki bat izango zuen espazioa). Arin-arin lehenengo jaietan 24 talde sortu ziren, 1.600 pertsonen parte-hartzea ekarri zuena.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 13 07/11/2016 12:00:40

MANAGEMENT



Bizkortasuna
Kalitate baxua
Esperimentala
Urbanizazio berria

1959 eta 1961 artean eraikita

Eraikuntza akatsak

1970

ANOLAKETA - HERRITARREN ALDARRIKAPENA

Proiektistak | Administrazioa | Auzo- elkartea

PARTAIDETZA BERRITZE PROIEKTUETAN

Espazio publikoak | Etxebizitzen | Urbanizazioa

HERRI BERRERAKETA PARTEHARTZAILEA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 14 07/11/2016 12:00:40

HERRI BERRERAKETA PARTEHARTZAILEA

Egilea/k: Otxarkoagako familien Elkartea
Kokapena: 3-Otxarkoaga / Txurdinaga, Bilbo
Tipologia: antolaketa sistema, estrategia
Kideak: Otxarkoagako bizilagunak
Publiko / komunitate osoa: 800 familia bazkide
Adimena: herritarren partaidetza auzo osoa birdiseinatu, urbanizatu eta bertan egindako hirigintza, eraikuntza eta diseinu akatsak zuzentzeko.
Jarduera / Azalpena: Otxarkoaga mugimendu modernoak hirigintzan, arkitekturan eta eraikuntzan egindako esperientzien laborategi bat izan zen. 18 hiletan (1959-1961), 14 etxebizitza-blokeetan 3.672 etxebizitza eraiki ziren14 arkitekto, 2 ingeniari, 7 eraikitzaile eta 5000 langileekin. Erabilitako materialen kalitate baxua eta etxebizitza-blokeen inguruko lurretan egindako urbanizazio lan urriak zirela eta, laster irisgarritasun, hezetasun eta beste arazoak agertu ziren. 70ko hamarkadan, Ministerioa eta Udalarekin zituzten arazoak heltzeko, mikropartadaitzan oinarritzen ziren mekanismoak sortu zituen erakunde komun bat osatzen da.
Tresnak / Egitura: Otxarkoagako Familia Elkartea 1968an sortu zan. Edozein auzokideren partaidetzara zabalik dagoen elkarte asanbleario bat da. 70ko hamarkadan hartu zuen indarrari esker, auzoko 114 etxebizitza-blokeetan 4000 milioiko balioa izan zuten hobekuntzak egitea lortu zuten (1981tik 1989ra). Blokeetararaino momenturarte existitzen ez ziren sarbideak eta plazak egin eta Bilboko lehen Auzo-etxea sortzea ere lortu zuten (okupazioaren bidez). Urbanizazio eta hobekuntza lanak auzokideen partaidetzarekin aurrera eraman ziren. Diseinu irizpide batzuk ezarriz, proposatzen ziren anteproiektuen inguruan eztabaidatzen zuten burutuko zen azken soluzioa aurkitu arte.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 15 07/11/2016 12:00:40

MANAGEMENT



AUTOERAIKIRIKO MASUSTEGI

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 16 07/11/2016 12:00:41

AUTOERAIKIRIKO MASUSTEGI

Egilea/k: Masutegiko lehen auzotarrak
Kokapena: 8 - Basurto / Zorroza
Tipologia: Autoantolaketa gaitasuna
Kideak: Masustegiko auzotarrak
Publiko / komunitate osoa: 4000 auzotar
Adimena: Auzo oso bat informalki auto-eraikitzeko auto-antolaketa.
Jarduera / Azalpena: Masustegi, 60ko hamarkadan, gehien bat Galiziatik etorritako immigranteak mendi-magal batean autoeraikitako auzoa da. Etorkinek, magaleko lursailen jabeei idazkin gabe partzela batzuk erosi ondoren, auzo berriaren eraikuntza lanak egiteko haien artean antolatzen ziren (estolderia eta oinarrizko beste zerbitzu batzuk). Auzoaren kale estuak, irregularrak eta etxebizitzak eraiki ziren ordenaren arabera jarritako zenbakikuntzak, eraikuntzaren izaera espontaneoa agerian usten du. 2010.urtean auzotarrek Bilboko Udalak Masustegiko auzoa osatzen duten lurrak erostea eta oinarrizko zerbitzu eta urbanizazio lanetaz arduratzea lortu zuten.
Tresnak / Egitura:
Hiru horma altxaturik zituen edozein etxebizitza behera botatzea debekatzen zuen lege-frankista bati esker eraiki zen auzoa. Auzokoek haien lursailean eraikitzeko baimena ez eduki arren, gauen etxeak aurrera eramateko antolatzen ziren. Herriko apaizaren partaidetzak zaindarien gainbegiratzea saihestera lagundu zuen. Prozesu guzti hori auzokoen artean eman zen elkar laguntza eta, etorritako familiek iturgintzan, igeltserotzan, elektrizitate eta eraikuntzan orokorrean zituzten ezagupenek baimendu zuten.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 17 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT





SAN GABRIEL AUZO-ELKARTEA

MASUSTEGIKO LOKAL SOZIALA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 18 07/11/2016 12:00:41

MASUSTEGIKO LOKAL SOZIALA

Egilea/k: San Gabriel Auzo Elkartea
Kokapena: 8 - Basurto / Zorroza, Masustegi
Tipologia: Autoantolaketa gaitasuna
Kideak: 5 - 10 pertsona
Publiko / komunitate osoa: 4000 auzotar
Adimena: Belaunaldi desberdineko auzotarrentzat den, auzo eta kultur espazioaren auto-kudeaketa.
Jarduera / Azalpena: Masustegiko Zentro Soziala, bizilagunen gozamen kolektiborako - ekintza pribatuak kanpoan utziz- elizgizonak laga zuen eraikin txiki batetan kokatzen da eta auzotar guztien elkargune modura erabiltzen da. Taberna-barra bat duen espazio handi bat da eta bertan apalak liburuekin, mahaiak, aulkiak eta urteetan zehar egindako ekintzen zein inguruaren historiaren oroigarriekin apainduta dago. Han elkartzen dira zaharrenak kartetan jolastera, helduak zer edo zer hartzera eta txikienak eskulanak egin eta jolastera.
Tresnak / Egitura: San Gabriel Auzo Elkartearen muina 5 pertsonek eta auzoren 4 barrutietako ordezkariek osatzen dute. Lokalaren kudeaketa 17 pertsonen artean antolatzen diren txandekin aurrera eramaten da. Elkarteko kideen bat erantzule baldin bada, espazioa ordutegiz kanpo erreserbatu daiteke ekintza desberdinetarako. Elkarte bera da kudeaketa, programazioa, herri-jaiak eta auzoan egiten diren ekintzak antolatzen dituena. Gaur egun arduradunek auzoko beste pertsonen artean, haien ordezkoak izango direnak agertzea eskatzen dute baina ataza erreza ez da.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 19 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT



ONDASUN EKONOMIKOTIK ONDASUN KULTURALERA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 20 07/11/2016 12:00:41

ONDASUN EKONOMIKOTIK ONDASUN KULTURALERA

Egilea/k: Josune Muñoz - Skolastika
Kokapena: Abando
Tipologia: Estrategia
Kideak: pertsona 1 edo 2
Publiko / komunitate osoa: Emakumeak
Adimena: Kapital kultural eta ekonomikoaz elikatzen den eta aldi berean, kapital hauek sortzen dituen negozio-ereden sorkuntza eta kudeaketa.
Jarduera / Azalpena: Skolastika zerbitzu literario feministak eskaintzen dituen enpresa feminista da. Bere barne, oso zehatzak diren bilduma bibliografiko feministaz (ekialdetar feminismoa, komiki feminista, etab.) osatutako, eta estatu-mailan bakarra den dokumentazio zentro bat badu. Bilduma baliotsu hauen bitartez sortzen dira enpresak eskaintzen dituen formatu kultural ezberdinak, eta aldi berean, bildumak zerbitzu hauen bidez sartzen den diruaz handitzen dira.
Tresnak / Egitura: Skolastika orain dela 13 urte martxan jari zan eta pertsona bakar batez (Josune Muñoz) edo, aldi baterako laguntzaileren batez, osatuta dago. Enpresa honen oinarria 6000 liburukiko bilduma duen Dokumentazio Zentroa da. Espazio hau, aldizka antolatzen diren ikastaroetan parte-hartzen duten emakumeei, batez ere, zuzenduta dago. Enpresa honek sortzen duen ondasun kulturala hurrengo gaietan datza: Dokumentazio Zentroa, Arte feministaBilduma (marrazki, eskultura, collage, mugikorrak, etab. dituena), astero egiten diren jarduera kultural feministak (migratzaile emakumeen topaketa, Amentzako Kafea, Creativa (krisialdian dauden emakumeentzako topaketak, etab.) eta emakumeen formakuntzarako bekak.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 21 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT



ESPAZIO-KUDEAKETA



PROIEKTUAK

hiritarren proiektuak
Ekonomia soziala
Heziketa
Kultura
Kirolak
...

BATZORDEAK

Programazioa
Komunikazioa
Generoa
Diruzaintza
Mantenua

Proiektu berriak
Hiritarrak



BILTZAR OROKORRA

AUZOKIDEEN BIDEZ MARTXAN JARRITAKO BERTAN BEHERA UTZITAKO ESPAZIOA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 22 07/11/2016 12:00:41

AUZOKIDEEN BIDEZ MARTXAN JARRITAKO BERTAN BEHERA UTZITAKO ESPAZIOA

Egilea/k: Krml Bizirik
Kokapena: Begoña, Santutxu, Bilbao
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: Santutxuko auzotarrak
Publiko / komunitate osoa: Santutxuko auzoa
Adimena: Hiritarren erabilerarako hiri hutsune baten berraktibazio auto-antolaketaren bitartez.
Jarduera / Azalpena: Karmelo Ikastola 1964an Gurasoen Kooperatiba modura sortu zen; 1993an Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa izatera pasatu zen: hezkuntza erabileradun eraikina izateaz utzi bazuen ere, erabilera soziala izatera pasatu beharko zuen. 2014an hutsunik geldituz gero, 2015an, gaur egun udalarekin espazioaren lagapena negoziatzen dagoen hiritar talde batek eraikina okupatu zuen. KRML bizirik, eraikuntza ororen ongia izatera pasatzea proposatzen du, publiko-pribatuak suposatzen duen dikotomia gainditu eta "jabetza"-kolektiboa eta kudeaketa komunitarioa duen espazion apustu eginez.
Tresnak / Egitura: Erabakitze - tresna birekin antolatzen dira. Alde batetik, ekimen berriek eta komunitatea osatzen duten pertsonek hilean behin parte hartzen duten Biltzar Orokorra dago. Topaketa ludikoak (bazkaria, etb.) eta auzo-elkarretaratzea egiten saiatzen dira, dinamizatuak diren eztabaida estrategikoentzat momentua sortuz. Bestetik, Asteroko Biltzarrak batzorde ezberdinetako ordezkariak batzen ditu kudeaketa eta eguneroko erabakiak bertan hartzeko. Proiektuak funtzionamendu horizontalena oinarritzen da, pertsonen arteko zainketa eta erlazioei arreta handia jarriz.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 23 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT

HIRITARRAK



BIZIT SANTUTXU TXARTELA



AUZOKO DENDAK

AUZOKO KIROL-KLUBAK

AUZO CROWFUNDING TXARTELA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 24 07/11/2016 12:00:41

AUZO CROWFUNDING TXARTELA

Egilea/k: Bizit Santutxu
Kokapena: Begoña, Santutxu, Bilbao
Tipologia: antolaketa sistema, estrategia
Kideak: 5 kide dituen elkartea
Publiko / komunitate osoa: Santutxuko auzoa, dendak, eta kirol-kluba
Adimena: Agente ezberdinen artean erlazioak sortu eta guztientzako onuragarria den sistema: kirol-elkarteentzako dirua bilduz, lekuko merkataritza sustatzen du.
Jarduera / Azalpena: Ekonomia-krisia zela eta, kirol-klubak, haien oinarrizko jarduerak betetzeko (kartelak, ekipazioa...) tabernen laguntza edo babesa lortzeko arazoak izaten hasi zituzten. Bizit Santutxu planteatutako sistemaren bitartez auzotarrak, kirol-taldeak lagunduz, auzoko dendetan abantailak lortzen dituzte. Urtean 20€ko balioa duen txartelarekin, kideak auzoko saltokietan beherapenak dituzte eta 20€ak kirol-taldeetan banatzen dira haien elkartearen beharrak mantentzeko. Auzotarrak, saltokiak eta kirolariak onuradun dira.
Tresnak / Egitura: Urtebeterako txartela 20€ balio du eta dirua hurrengo moduan banandu egiten da: %60 a (12€) elkartean gelditzen da gastu orokorrentzat; %20 (4€) Bizit Santutxun dauden auzoko kirol-klubleentzako eta %20 (4€) bazkidea erakartzen duenarentzat. Kirol-kluba bera izan daitekena, guztira %40 lortuz... Bizit txartela duten bazkideek auzoko 140 saltokietan beherapenak lortu eta astero zein hilero egiten diren zozketetan parte hartu dezakete. Bizit Santutxu, elkartearen barruan ataza desberdinak dituzten 5 pertsonek osatzen dute.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 25 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT



LANBIDEEN SINERGIAK FABRIKA ZAHARREAN

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 26 07/11/2016 12:00:41

LANBIDEEN SINERGIAK FABRIKA ZAHARREAN

Egilea/k: 30 enpresa eta ekimen Zorrozaurren
Kokapena: Deusto, Zorrotzaurre, Bilbao
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: 30 enpresa eta elkarte
Publiko / komunitate osoa: Bilboko hiritarrak
Adimena: Espazio batetan Maila teknologiko eta sektore ezberdinetako ekimenen integrazioa, emaitza eta formatu berezi eta erakargarriak sortuz.
Jarduera / Azalpena: 30 enpresa eta elkarte ezberdinak elkarrekin bizi dira Gaileta Fabrika Zaharrean; lanbide tradizionaletako langileak (egurgintza, etab.), sormen industria (Open ...), fabrika digitala (Maker Faire, Cookie Factory...), hiri-kultura (Skateboard Gure Txoko, Zirkozaurre, ...),baita erlijioa ere (eliza ebanjelikoa). Egoera honek, garai eta teknologia desberdinak hibridatzen dituzten emaitzak sortzen ditu; ekintza berriak sustatuz (berrerabiltze azokak, kirol berriak ...) zein objektuen produkzioan berrikuntza ekarriz (materialen berrerabiltzean oinarritutakoak, etab.)
Tresnak / Egitura: Ekimen bakoitzak bere espazio du ; eskailerak eta korridoreak dira elkarbanatzen diren espazio bakarrak. Bertan dauden ekimenek lotura edo harreman formalak eduki ez arren, ohiz elkar-laguntza edo truke komertzialak ematen dira. Adibidez, Ziriak egurtegiak, Open Espazioarekin lan egiten du laser-ebaketaren bidez egindako egur piezen produkzioan, makineria-industrialariekin lan egiten duten enpresek, lokalen aktibazio eta birgaikuntzan laguntzen dute ... Iganderoko programazioak, jende asko biltzen duenak, artisau batzuentzat bezeroak erakartzeko laguntzen duen erakustokia ere bada, eta abar.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 27 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT



BERRERABILPEN AZOKAK

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 28 07/11/2016 12:00:41

BERRERABILPEN AZOKAK

Egilea/k: Open Espazioa
Kokapena: Deusto, Zorrotzaurre, Bilbao
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: Open Espazioa
Publiko / komunitate osoa: Saltzaileak eta Bilboko hiritarrak. Publiko guztiak.
Adimena: Berrerabiliak diren objektuen salmenta eta aldi berean, Gaileta Fabrika Zaharraren aktibazioa baimentzen duen sistemaren sorkuntza.
Jarduera / Azalpena: Open Your Ganbara, igandeetan Gaileta Fabrika Zaharrean ematen den azoka da. 2009an hasi egiten da, bere gauzak prezio merkean saldu nahi zituzten pertsonak eta hauentzako erosleak zirenak kontaktuan jarriz. Momentu horretatik aurrera, azoka handituz joan da mota guztietako produktuak eskaintzen dituzten saltzaile profesionalak bere barne hartuz. Gaur egun bertara hurbiltzen den jendeak, komunitatearentzako ekintza ezberdinetarako tokia sortezen du.
Tresnak / Egitura: Open Espazioak azoka ematen den tokia kudeatu egiten du, azoka eguna antolatuko duen talde bat sortu eta 2m x 60cmko mahai bat saltzaile bakoitzari ematen diote. Gaur egun taldea 7 pertsonek eta azokako 12 hornitzailek osatzen dute. Partaidetzari dagokionez bi kategoria proposatzen dituzte: A. Open Your Ganbara, " ganbara ireki ", amateur diren saltzaileri zuzendua (2. eskuko objektuak) - gaur egun 1.920 postu – eta B. Open Your Sormena, " sormena zabalduz", ekintzaile edo profesional ezberdinei zuzendua: diseinatzaile, artisau, markak – urtero 518 posturekin. Igandero 2.000 bisitari inguru hurbiltzen dira.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 29 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT



URIBARRIAUZOLEAN

URIBARRI EGUNA

Elkarteen erakustazoka

Elkarte-tailerrak

Haur eta helduentzako ekintzak

Liburu trukea

URIBARRI EZAGUTU ETA GOZATU!

Ibilaldiak

auzoren historioa

AUZOLANA

Espazioak auzoare gain hartu.

URIBARRI AUZOLANEAN

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 30 07/11/2016 12:00:41

URIBARRI AUZOLANEAN

Egilea/k: Uribarriko ekimenak
Kokapena: Uribarri
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: Uribarriko 18 ekimen
Publiko / komunitate osoa: Uribarriko auzotarrak
Adimena: Ekimen ezberdinen arteko koordinazioa auzotar gehiago batu ditzaketen ekintzen antolaketarako.
Jarduera / Azalpena: Uribarri Auzolanean 2011 jaio egiten da auzoaren bizitza soziala, kultura eta ekonomikoa berpizteko, auzoko kolektiboak, elkarteak eta pertsonen arteko elkarlanaren bitartez ekintza soziokultural antolatuz. Taldearen bizitza Uribarri Egunarekin hasi zen; ekimenek bere burua aurkeztu, ekintzak eta ibilaldiak antolatuz, Uribarriko historia kontatu zuten. Egindako azken ekintzetako bat bide baten konponketa izan da, jaietan egindako diru-bilketa bidez lortutako diruarekin.
Tresnak / Egitura: Ekimen ezberdinekin kontaktuan jarri eta barrutiko auzo bakoitzean biltzar irekiak iragarri zituen taldeak izan zen proiektu honen eragilea. Auzoko ekimenen (18) ordezkariak batzen zituen biltzar horizontalak ziren. 5tik 12 pertsonara parte hartzen zuten eta proposamenak egiten ziren, geroago iniziatiben artean egin beharreko lana banatuz. Ekintzen edo beharren arabera, 4 edo 5 astero bilerak egiten zituzten.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 31 07/11/2016 12:00:41

MANAGEMENT



PROKOMUN LINGUISTIKOEN ZAINTZAILEAK

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 32 07/11/2016 12:00:42

PROKOMUN LINGUISTIKOEN ZAINTZAILEAK

Egilea/k: Tanttaka
Kokapena: Uribarri, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: partaidetza aldakorra
Publiko / komunitate osoa: Uribarriko auzotarrak
Adimena: Prokomun kultural linguistikoaren babes eta zainketa-rako pertsonenen erakundea.
Jarduera / Azalpena: Tanttaka Uribarriko barrutian euskara sustatzen duen elkartea da. Haien helburua, Bilbon ahalik eta pertsona kopuru handiarekin euskaraz hitz egitea eta hizkuntza bizirik mantentzea da, haien auzoa bereziki euskalduna ez dela jakin arren. Horretarako ekintza desberdinak egiten dituzte: Bertso Bazkaria, Berbalaguna (arreta euskaraz ematen duten komertzioak identifikatu), etab. Jaietan, Uribarrik bere txosna du.
Tresnak / Egitura: Aldakorra den eta urtero eratzen den taldea da. Behin Uribarriko Jaiak amaitu direnean, bilera bat antolatzen da pertsona bakoitzak libre izango duen denboraren arabera lana antolatzeko. Urtean zehar lortu beharreko helburuak eta egin beharreko ekintzak erabakitzen diraeta lanari ekiten diote. Bilbon euskara talde ezberdinak daude. Bakoitzak independenteki koordinatzen diren arren, auzo bakoitzeko txosnetako txandak guztion artean banatzen dituzte.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 33 07/11/2016 12:00:42

MANAGEMENT



TTOOFF
MAMIA

DENBORAK

PUBLIKOAK

ESPAZIOAK

JAIALDI
IKUSEZINA

BAD JAIALDIARENTZAKO
AHOLKURARITZA

BESTE JAIALDIAK POSIBLE DIRA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 34 07/11/2016 12:00:42

BESTE JAIALDIAK POSIBLE DIRA

Egilea/k: 770Off
Kokapena: Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema / Partaidetza dinamikak
Kideak: Jaialdietara lotuta dauden 14 ekintzaile (artistak, komisariotza, produkzioa...)
Publiko / komunitate osoa: Jaialdietara lotuta dauden 14 ekintzaile (artistak, komisariotza, produkzioa...)
Adimena: Publikoarekin demokratikoagoak eta partehartzaileagoak diren harremanak ezartzearren, kolektiboki, molde kulturalak birpentsatu (jaialdia kasu honetan)
Jarduera / Azalpena: 770off jaialdietan orokorrean ematen diren espazio eta denborak kolektiboki (bir)pentsatzeko sortzen den taldea da. Gaur egungo festibalen eredua, artista zein publikoarentzat zaharkituta dagoela ulertuz (programazioari dagokionez, artista internazionalak, etab.), publikoaren parte-hartzea ahalbidetu eta sorkuntzentzako moldakorragoak diren denbora eta espazioak sortzea planteatzen dute.
Tresnak / Egitura: Hasiera batean 3 pertsonez osatutako zelula batek, 14 partaide izan zituen 2 eguneko iraupeneko dinamika-oinarri bat sortu zuten (jaialdi bat sortzen duten profil ezberdinekin: produktorea, artistak, etab.). Bi egunetan zehar espazio, denbora eta publikoen inguruan lan egin zuten. Elkarretaratze honetatik aurrera, "jaialdi ikusezina" proiektuaren bidez jarraipena duen talde bat eta BAD jaialdiarentzako aholkularitza beste talde bat sortu ziren.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 35 07/11/2016 12:00:42

MANAGEMENT



TALDE-ERAGILEA



TALDE ALDAKORRA



LABORANTZA LURSAILA

Elikadura burujabetza
Ez konstumismorik
Harreman pertsonalak
Heziketa agroekologikoa
Osasuna

AUZOKO BARATZA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 36 07/11/2016 12:00:42

AUZOKO BARATZA

Egilea/k: Desazkunde eta Uribarriko auzotarrak
Kokapena: 3 - Uribarri, Uribarri osoa, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: 20-30 pertsona inguru
Publiko / komunitate osoa: Uribarriko eta Bilboko auzotarrak
Adimena: baratze espazio kolektibo baten auto-antolaketa eta agroekologiaren inguruko topaketak.
Jarduera / Azalpena: Desazkundek elikadura burujabetzaren proiektu praktiko modura hasi zuen baratz elkarbanatua. "Abegi egin, elkar erlazionatu, eztabaidatu, naturarekin elkartu eta gure artean benetako loturak sortzea ahalmentzen duen aisialdi espazio ez kontsumista da. Agroekologia ikasi eta gure lana eta esperientzia besteentzat eskainiz probetxugarri sentitzeko aukera ematen digu. Produktu kimikorik gabeko gure elikagaiak ekoizteko modu bat da; elikadura burujabetza, naturarekiko arduradun eta osasuntsuago den bizimodua zabalduz."
Tresnak / Egitura: 3 lan-talderen bitartez udalarekin kontaktuan jarriz hasi ziren emaitzik lortu gabe. Hala ere, proiektuaren inguruan pentsatu eta beste kolektibo batzuekin (Veterinarios sin fronteras, EHNE, Munduko Emakumeak, auzotarrak, etab.) irizpideak bateratzeko mesedegarri izan zen. Gaur egun, Zurbaranbarri auzoan udalaren lur zati batetan kokatuta dago. Finkoa den eta 3-5 pertsona dituen talde baten inguruan antolatzen dira. Igandeetan 20 bat pertsona elkartzen dira, eta laborantzak behar duenaren arabera asteazkenetan 15.30tik 17.30ra ere batzen dira.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 37 07/11/2016 12:00:42

MANAGEMENT

UDALA

MERKATARIEN ELKARTEA



BESTE AGENTE BATZUK

Ekintzaileen showroom-a

Bilera
Hitzaldiak
Workshops



EXPO GELA

Lantokia

Erakusketa

Informazio bulegoa

EXPO GELA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 38 07/11/2016 12:00:42

EXPO GELA

Egilea/k: Bilbao Historiko
Kokapena: Ibaiondo, San Frantzisko
Tipologia: Espazioa - Antolaketa sistema
Kideak: Bilbo Historiko eta kolaboratzaileak
Publiko / komunitate osoa: Hiri osoa
Adimena: Agente publiko eta pribatuen (komertziante elkarteak) arteko elkarlanaren bitartez, profesional eta ekimen lokalen erabilerako espazio baten sorkuntza, lurralde bat sustatzeko.
Jarduera / Azalpena: ExpoGela Bilboko auzo historikoetan (Ibaiondo barrutian eta Atxuri auzoan) kreazio-jarduerak zabaltzeko, erakusketak antolatzeko eta beste ekintzetarako irekia dagoen espazio publikoa da. Bere barne ditu: BilboHistorikoko edozein espaziotan egiten diren kreazio eta kultur ekintzen Informazio-zentroa, erakusketa espazioa, ekintzen barne-erabilerako gune bat, bilerak, hitzaldiak eta aurkezpenak egiteko tokia eta Bilbo Zaharrean lan egiten duten ekintzaileentzako show-room gune bat ere.
Tresnak / Egitura: Tokia udalarena da eta Bilbao Ekintzaren hitzarmen baten bidez kudeatu egiten da. 2 pertsona bertan jarraiki egiten dute lan eta elkarte-buruarekin ere kolaboratu egiten dute. Horretaz gain 2 gazte bolondresek laguntzen dute (irabazi-asmorik gabeko elkarteetan, Bilboko udal-etxebizitzetan egoiliar izatearen truke, lan egiten dutenek). Beste blondresen babesa ere badute; adibidez, noizean behin lagundu edo aholkularitza eskaintzen dieten BilbaoHistorikoaren Lagunak, edo ekitaldiren bat antolatu nahi duten pertsonek espazioa mailegatzearen truke eskainitako lana. Erabakiak hartzeko, elkarteekin egiaztatze informalak eta merkatarien elkarteekin aldizka bilerak egiten dira.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 39 07/11/2016 12:00:42

MANAGEMENT

ANTOLAKETA BILERA

Agenda / web / Materialen fabrikazioa / Tailerren antolakuntza



TALDE ALDAKORRA

Saioetan parte hartu

MARRAZTU



ASTEROKO SAIOA

Marraztu / Topaketa soziala / Balioan jarri ingurunea

DIBUJA TOL RATO

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 40 07/11/2016 12:00:42

DIBUJA TOL RATO

Egilea/k: Josune Urrutia, Bea, eta Bizkaiko interesadun marrazkilariak
Kokapena: Ibaiondo, Bilbo Zaharra, San Frantzisko, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: 15-30 pertsona
Publiko / komunitate osoa: Haiek
Adimena: Antzeko interesak dituen pertsona talde baten autoantolaketaren bidez, ikaste eta arte-ekintza baten sorkuntza.
Jarduera / Azalpena: Marrazteko grina duen eta marrazketaren bitartez hain zuzen ere, elkarren artean eta haien komunitateekin erlazionatzen den talde ireki eta autokudeatu bat da. Kalean, naturala dena, kolektiboki marrazten dute. Helburu bakarra ez da marrazketan aritzea eta taldeka ikastea, haien inguruneari, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalari, balioa ere ematea baizik.
Tresnak / Egitura: 2014an, WikiTokiren babes logistikoari esker, Beak eta Josunek, topaketei hasiera eman zieten. Bertatik aurrera sortzen den taldearen erabakietan eta garapenean aktiboki parte hartzen duen pertsona talde bat sortu egiten da. Gutxika, handituz doa eta behar edo nahien arabera taldea antolatzen da. Astelehenero leku ezberdin batetan topatzen dira marrazteko. Hileko azken astelehenean hurrengo hilabeteko elkarretaratzeak erabakitzen dituzte eta bere web orrian jartzen dituzte. Erabilitako koadernoak beraiek egiten dituzte, noizean behin papera moztu eta tolesteko talde txikietan antolatuz.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 41 07/11/2016 12:00:42

MANAGEMENT

UDALA

OSTALRITZA PRIBATUA

EKIMENEN SAREA



KUDEAKETA

Biltzarra · Lan taldea

PARTAIDETZAREN BIDEZ EGINDAKO PROGRAMAZIO

AUZOA

Kulturaniztasuna
Belaunaldiartekoa

HIRITARRAK

Biltzarrak
Saio irekiak
Deialdi jarraikia

ARTISTAK

Arteak
Grastronomia
Zinmea

AUTOKUDEAKETA PUBLIKO / PRIBATU / KOMUNITARIOA

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 42 07/11/2016 12:00:42

AUTOKUDEAKETA PUBLIKO / PRIBATU / KOMUNITARIOA

Egilea/k: Sarean Elkartea
Kokapena: Ibaiondo, Bilbo Zaharra, Zabala, San Frantzisko, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: Bilbo Zaharra, Zabala eta San Frantziskoko hiritarren ekimenak
Publiko / komunitate osoa: Bilbo Zaharra, Zabala eta San Frantziskoko auzotarrak
Adimena: programazio kulturala duen auzo-espazio baten sorkuntza eta kudeaketarako, eragile publiko, pribatu eta auzokideen arteko kolaborazioa.
Jarduera / Azalpena: Sarean, auzokoak elkarretaratzeko eta kultura-adierazpen ezberdinei irekia dagoen lekua da, alegia, izaera esperimentala eta pedagogikoa duen espazio ludikoa, jatetxe eta taberna bat. Proiektua erakundeen arteko elkarlanaren eredua da: Udalak (Bilbao Ekintza), berrikuntzarako dirua eman eta espazioa bera laga du; jatetxea eta taberna lehiaketaren bidez lortuta, ostalaritza-enpresa pribatu batek kudeatzen du; programazioa, inguruko auzoko ekimenak batzen dituen elkarte irekiaren esku dago.
Tresnak / Egitura: Sarearen nahia hiritarren partaidetzarekin diseinatutako programazio sozio-kultura eskaintzea da. Bere tartean auzoko kolektiboak hartzen dituen elkarte honek espazioaren kudeaketa darama. Hilero denoi irekiak diren bileratan batuz, egin beharrekoak lan-taldeetan banatzen dira. Ekintza bat proposatzeko, pertsonek zein ekimenek, inprimaki baten bidez online egiten den eskaera prozesua hasiz edo bileratara joanez egin dezakete. Egindako ekintzen finantzamenduaren %10 ostalaritza-negozioaren irabazietatik eta erakunde publikoen subentzioetatik (Udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritza) dator, gutxiengo bat bazkideen kuotetatik etorriz.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 43 07/11/2016 12:00:42

MANAGEMENT



ESPAZIO ERABILGARRIAK

ARTISTAK



KOORDINAZIOA

Errejidurua eta
prestakuntza lanak

PARTAIDETZA MODU 2

PROPOSAMEN BOLUNTARIOAK
(KOSTURIK GABE)

Todas las propuestas son aprobadas

AURREKONTUAREKIN

Aprobatuko beharreko
memoria aurkeztu behar da

Aldundia

Eusko Jaurlaritza

GAU IREKIA: JAIALDI ARTISTIKO ETA KULTURALA BOTTOM-UP

inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 44 07/11/2016 12:00:42

GAU IREKIA: JAIALDI ARTISTIKO ETA KULTURALA BOTTOM-UP

Egilea/k: Sarean Elkartea, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako ekimenak eta auzotarrak
Kokapena: Ibaiondo, Bilbo Zaharra, Zabala, San Frantzisko, Bilbo
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: Bilbo Zaharra, Zabala, San Frantziskoko espazioak, agente sozial eta kulturalak
Publiko / komunitate osoa: Bilboko auzotarrak
Adimena: Interes orokorreko ekintza soziokulturalak prestatzeko asmoarekin eta aldi berean inguruko ekimenen arteko harremanak estutzeko auzo desberdinetako eragileen arteko lotura.
Jarduera / Azalpena: Gau Irekiak San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabalako auzoen jarduera soziokulturalak bistaratzea bilatzen du. Arratsalde eta gau batean zehar, doan diren eta auzo hauetako 50 bat lokal ezberdinetan ematen diren 90 ekintza elkartzen ditu. Eremu horretako ekimen kopuru handia aprobetxatzen da auzoko lokal ezberdinak (tabernak, jatetxeak, zentro-publikoak, etab.) eta beste erakunde batzuk (EHUko Arte Ederrak, BilbaoArte, etab.) lotzeko, jendarte handi bati zuzendutako jaialdi bat sortzeko eta ondorioz, auzoko agente ezberdinen artean harremanak estutzeko.
Tresnak / Egitura: Ekitaldia Sareaneko koordinatzaile batek eta languntzaile batek antolatzen dute. Deialdi ireki bat egin ondoren, espazioak eta ekimenak aurkezten dira bi partaidetza moduren arabera: 1. Boluntarioa: mundu guztia onartua da; 2. Aurrekontu osagarri bat eskatuz: berrikusi eta onartu beharreko memoria aurkeztu behar da. Deialdi honetatik, zein ekintza, zein ordutan eta non egingo diren koordinatzen da eta komunikazioa prestatzeari bide ematen zaio. Sareaneko bazkideen artean ekitaldiaren eguneko errejiduria eta produkzio atazak banatzen dituzte eta zerbitzu-teknikoetaz arduratzen dira. Finantzamendua Eusko Jaurlaritza, BLVko Plan Komunitarioaren Bulegoa, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udalaren esku dator.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 45 07/11/2016 12:00:42

MANAGEMENT



LURPEKO SARE GLOKALAK

ic inteligencias colectivas

FICHAS IC MANAGEMENT def EUSKERA.pdf 46 07/11/2016 12:00:43

LURPEKO SARE GLOKALAK

Egilea/k: Le Larraskito
Kokapena: Rekalde, Rekaldeberri-Larraskitu
Tipologia: Antolaketa sistema
Kideak: Bi pertsona finkodun eta aldakorra den saredun antolaketa talde bat
Publiko / komunitate osoa: Musika elektroniko esperimentalean interesa duten 20-100 pertsoneko sarea
Adimena: Sare internazional baten parte izatea eta interes espezifiko baten inguruan (musika esperimentala) komunitate lokal bat sortutzea, bien artean harremanak eraikiz.
Jarduera / Azalpena: Le Larraskitu, 2008tik aurrera musika elektroniko esperimentaleko kontzertu internazionalak eskaintzen dituen eta eraikuntza industrial zahar batean kokatuta dagoen espazioa da. Proiektu hau musika auditorium instituzionaletatik edo ostalaritzako festa lekuetatik kanpoz entzutezko jaialdiak eratzeko beharretik sortu zen. Krisialdia eta programazio faltak ere biderarazi zuen. Espazio hau sare europar internazional baten parte izanda, jatorri ezberdinak dituzten artistekin emanaldiak antolatzen dituzte, diziplina anitzeko artista lokalekin (ikus-entzunezkoak, etab.) ere nahastuz.
Tresnak / Egitura: Kontzertuak egiten diren tokia, interes desberdinak (eskultura, elektronika, etb.) dituzten 5 artisten lantokia da. Haietako batek antolakuntzan parte hartzen du eta besteak kontzertuak bertan jazotzea usten dute. Emanaldiak beti autokudeatuak izan dira. “Mamia” diren pertsona pare batek musika elektronikoko artista internazionalekin kontaktuan jarri eta antolaketa bakoitzerako talde txiki bat sortzen dute. Ez daukate finantzamendurik eta erakundeen laguntza ez dute onartu: sarrerako dirua artisten garraioren gastuak, kartelak eta bestek kostu batzuetarako doaz zuzenduak. Estatu espainolean, Madrilen baino ez dago antzeko espazio bat.

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao